

## **II. B ZATIA. BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA ZUZENBIDEA. ZATI BEREZIA**

### **1. ARIKETA PRAKTIKOA:**

BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietatearen jarduera ERAIKINEN SUSTAPENA (1 83321 epígrafea) da.

### **LEHEN ZATIA**

Hurrengo kasuan ematen den informaziotik abiatuta, aztertu kasu horretatik ondorioztatu daitezkeen alderdi hauek: zergapeko egitatea, subjektu pasiboa, zerga-oinarria, karga-tasa, zerga-kuota eta debengoa, BEZi, Ondare-eskualdaketen Zergari eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokienez. Atal bakoitza modu independentean aztertu behar duzu.

**Oharra:** Kasuan ageri diren zifra guztiak BEZik gabekoak dira.

a. BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietateak bere kapital soziala 1.000.000 €-tan handitu du, akzio-jaulkipenaren primaren bidezko erreserbaren kontura, eta eragiketa dagokion eskritura publikoan dokumentatu da.

b. Sozietateak ERAGILEAK SA erakunde sustatzaileari 3.000.000 €-ko orube bat erosi dio, babes publikoko etxebizitzak eraikitzeko.

Erosketa hori finantzatzeko, banku bati 2.400.000 €-ko mailegu bat eskatu dio, eta, horren bermean, aipatutako orubearen gaineko ondasun higiezinaren hipoteka bat eratu du. Lehenengo bost urteetarako % 4,5eko interes-tasa finko bat itundu da.

c. Bi urte lehenago erositako beste orube baten gainean, etxebizitzaren eta merkataritza-lokalen eraikin bat eraiki da. Eraikina amaitu ondoren, obra berriaren adierazpenaren eta eraikina jabetza horizontalaren erregimenean eratzearen eskritura publikoa egin da. Eskritura horretan hau jasotzeko da: "zerga-ondorioetarako, proiektatutako lanen kostua 5.000.000 €-koa izan da, eta lanok egin direnako partzela-orubearen balioa 4.000.000 €-koa da".

d. Sozietateak kapital sozialaren 6.000.000 €-ko gehikuntza bat egin du, partzialki liberatutakoa. Gehikuntza hori borondatezko erreserben kontura egin da 3.000.000 €-ko kopuruan, eta sozio bakarrak beste 3.000.000 € jarri ditu. Dagokion eskritura publikoa egin da.

e. Sozietateak AAA farmazialari andreari (merkatari txikizkaria, baliokidetasun-errekarguan) lonja bat eskualdatu zion 2009/06/05ean. Sozietateak 2005/05/02an erosi zuen lonja hori eta 200.000 €-ko kopuruan, eta BEZa ordaindu zuen, oso-osorik deduzitu zuena. Lonja horretan, BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietateren sustapen batzuen salmenta-bulegoa egon da. Eskualdaketaren eskrituran jarritako prezioa 250.000 €-koa izan da. Tasazioaren balioa: 240.000 €. Gutxieneko balio eratzikigarria: 187.000 €.

f. BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietateak partikular bati orube bat erosi zion, 1.000.000 €-ko balio aitortuan. Egindako eskritura publikoan, orubea babes publikoko eraikin bat eraikitze erabiliko zela jaso zen, eta Ondare-eskualdaketan Zerga eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuesita geratzeko eskatu zen. Hala ere, zerga horien salbuespena onartu zenetik hiru urte igaro ondoren, BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietateak ez du lortu behin-behineko kalifikazioa.

#### **BIGARREN ZATIA**

BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietateak, 390 ereduan (amaierako autolikidazioa/urteko laburpena), bere alde dagoen urteko BEZaren saldoa, "n" urteari dagokiona, itzultzeko eskatu du.

Kontuan hartuta BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietateak ondorengo fakturretan agertzen den BEZaren kuota osorik deduzitu duela, **aztertu hurrengo eragiketak eta zehaztu, bakar-bakarrik, jasandako BEZaren zenbatekoa eta beraren deduzibilitatea "n" urtean**, eta arrazoitu laburrean erantzunak, atal bakoitza modu independentean hartuta.

1. Erakunde sustatzailearen izenean dagoen faktura bat, honako hau dokumentatzen duena: ERAGILEAK SA sozietateari Plentziako itsasadarrera begira dagoen eraikuntza berriko txalet bat erosi zaiola. Bertan, BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietatearen sozio bakarra biziko da. Erosketa-prezioa: 1.250.000 € eta dagokion BEZa.
2. Joyería Harribitxiak SL bitxitegian brillanteen eskumuturreko bat erosi dela dokumentatzen duen faktura bat: 90.000 € eta BEZa.
3. Eraikitze-fasean dagoen higiezinaren sustapen baten obren hirugarren ziurtagiria, "n" urteko abenduaren 21ekoa: 1.500.000 € eta BEZa. BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietateari informazioa eskatu ondoren, CONSTRUCCIONES CONS, SA

sozietateko kontratistarekin zuzenean formalizatutako lanen kontratuaren kopia aurkeztu du, eta kontratistak material guztiak emateko konpromisoa hartu du. Obra amaitu gabe dago, beraz, ziurtagiria amaierako obraren konturako aurrerakina da. Hirugarren ziurtagiriaren ordainketa 180 egunera egingo da, kanbio-letra baten bidez.

**4. GARRAIO ELEMENTUEI dagokienez:**

- a. Renting-eko fakturak: 25.000 € eta BEZa. Fakturok administratzaile bakarrak enpresaren legezko ordezkari gisa erabiltzen duen lur-orotarako ibilgailu baten alokairuari dagozkio.
- b. CONCESIONARIO TODOTERRENOS BILBAO SA enpresaren fakturak, lur-orotarako ibilgailuaren konpontze-lanei dagozkienak: 2.500 € eta BEZa.

**5. BIZKAI-PROMOZIOAK SAU** sozietateko merkataritza-zuzendariaren izenean dagoen faktura, Bartzelonako Hotel Alfonso X hotelak egindakoa, zuzendaria Nazioarteko Eraikuntza Azokara bertaratzeagatik: 1.000 € eta BEZa.

Azoka hori dela-eta, BIZKAI-PROMOZIOAK SAU sozietatearen izenean dauden jabetxeen fakturak, guztira: 750 € eta BEZa.

## 2. ARIKETA PRAKTIKOA:

Hurrengo kasuan ematen den informaziotik abiatuta, aztertu kasu horretatik ondorioztatu daitezkeen alderdi hauek: zergapeko egitatea, subjektu pasiboa, zerga-oinarria, karga-tasa, zerga-kuota, debengoa, dedukzioen erregimena, **BEZ**, **dagokionez**.

AAA farmazialari andrea merkatari txikizkaria da, baliokidetasun-errekarguaren erregimenean, eta ohiko bizilekua Bizkaian dauka. Higiezin batzuen jabea da (etxebizitzak eta garajeak), eta alokatuta dauzka. Ekonomi Jardueren Gaineko Zergan alta emanda dago "*elikagaien txikizkako salmenta*" eta "*higiezin errentamendua*" epigrafeetan.

(Oharra: Jarduera Ekonomikoen Sailkapen (CNAE-2009) berriaren arabera, *norberaren konturako ondasun higiezin alokairuari* 6820 taldea dagokio).

AAA andreak "*delicatessen*" denda bat dauka Bilboko erdigunean. Bertan, kalitate bikaineko denetariko elikagai eta edariak saltzen dira. Besteak beste, eragiketa hauek egin ditu (**behean ematen diren zenbateko guztiak BEZik eta BALIOKIDETASUN-ERREKARGURIK GABEKOAK** dira, kasuaren arabera):

- a. AAA andreak "Gran Reserva" ezkur-iberikoaren urdaiazpikoak erosi dizkio Salamancako hornitzaile bati, 10.000 €-ko zenbatekoan.
- b. Bodegas Marqués de Rioja Alavesa SAK BARÓN DE ELCIEGO markako ardo-partida bat saldu dio, 5.000 €-ko zenbatekoan.
- c. AAA andreak DOM P markako xanpain partida bat erosi dio Frantziako marka horren banatzaileari, zuzenean, eta Espainiako IFZ-BEZ jakinarazi dizkio. Xanpain horren zenbatekoa, Bilbon jarrita, 3.000 €-koa da.
- d. AAA andreak, gomendatu dioten web orri baten bidez, Amerikako Estatu Batuetan azken generazioko kutxa erregistratzaile bat erosi du. Aduanan duen balioa: 600 €. Inportazio-eskubideak eta bestelako gastuak, guztira: 100 €.
- e. Bilbo Hiriko Erakusleihen Txapelketa Nagusia dela-eta, DEKOR EUSKADI SA enpresari apaintze-artikulu batzuk erosi dizkio, 900 €-ko zenbatekoan. Halaber, dekoratzaile profesional independente baten ordainsariak ordaindu ditu. 300 €-ko faktura bat egin dio dekoratzaileak.

- f. AAA andreak Gernikako baserritar bati tomate eta piperren partida bat erosi dio, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen berezian, 3.500 €-ko zenbatekoan.
- g. Ondoren, CULTIVOS ECOLÓGICOS, SOCIEDAD COOPERATIVA kooperatibari gereziak erosi dizkio, 2.000 €-ko zenbatekoan.
- h. Jardueran erabili izan duen kutxa erregistratzaile zaharra beste merkataritxikizkari bati saldu dio, baliokidetasun-errekarguaren erregimenean, 300 €-ko zenbatekoan.

**Etxebizitza eta garajeen alokairuari dagokionez, urtean egindako eragiketa guztiak ondoren adierazitakoak dira. Horiei dagokien jasandako BEZaren zenbateko kengarria kalkulatu behar da bakarrik, eta horretarako hauek aplikatu behar dira: a) prorrata orokorreko araua eta b) prorrata bereziko araua. Ematen diren zenbateko guztiak URTEKOAK dira, kontrakorik adierazten ez bada.**

- A. Estrauntza kalean KANTABRIKOAK SA sozietateari alokatutako etxebizitza. Etxebizitza hori kudeatzailearen ohiko bizilekua da, eta errenta 20.000 €-koa izan da. Kontratuan ezarri da errentariari jasanaraziko zaizkiola finakako erkidegoaren gastuak eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga. Gastu horiek, hurrenez hurren: 3.900 € eta 800 €. Jasandako BEZaren kuotak: 5.800 €.
- B. Isozaki dorreetako batean, etxebizitza bat, garajea eta trastelekua batera KANTABRIKOAK SA sozietateko beste langile bat alokatu dizkio: 18.000 €. Kontratu hori langilearekin sinatu da zuzenean. Jasandako BEZaren kuotak: 900 €.
- C. Partikularrei Henaø kalean alokatutako 15 garaje: 11.000 €. Zenbateko horren barruan, ordaindu gabe dauden azaro eta abenduko ordainagiri batzuk sartuta daude, guztira: 400 €. Jasandako BEZaren kuotak: 750 €.
- D. Benidorm-eko apartamentu turistiko bat alokatu die pertsona fisiko batzuei, hilabeteka, hamabostaldika edo asteka. Eta asteko garbiketa-zerbitzu bat ekaini die inguru horretako enpresa baten bidez. Urteko sarrerak: 9.300 €. Jasandako BEZaren kuotak: 730 €.

**E.** AAA andreak kudeatzaile baten zerbitzuak erabiltzen ditu, eta urteko, etxebizitza eta garajeen alokairuaren administrazio zerbitzuengatik, guztira, 8.000 € eta BEZa kobratzen dizkio.

### 3. ARIKETA PRAKTIKOA

Ana Izagirre, 34 urtekoa, eta Josu Elexpe, 40 urtekoa, foru komunikazioko araubidearen arabera daude ezkontuta eta Bizkaiko Trapagaranen bizi dira, bion jabetzako (%50eko portzentaje) etxebizitzan. Familiaren etxebizitzan gurasoekin batera bi alaba bizi dira, Ilargi eta Eguzkine, hurrenez hurren 8 eta 3 urte dituztenak, eta Anaren ama, 71 urtekoak, alarguna eta ezindua denak, egiaztatutako % 60ko minusbaliotasun-maila du.

2009ko errenta egiteko orduan aholkulari baten bulegora jo dute, eta zerga-ondorioak dituzten hurrengo egitateak azaldu dizkiote aholkulariari:

- Ana lanbidez ingeniaria da, eta inoren kontura dihardu lanean enpresa batean. Enpresak 62.000 €-ko urteko kopuru gordina ordaindu dio (horren barruan 5.000 €, enpresan 10 urte emateagatik jasotako aparteko ordainsaria). Zenbateko horri 18.000 € kendu zaizkio, PFEZren konturako atxikipenen kontzeptuan, eta 3.270 € Gizarte Segurantzarekiko kotizazioen kontzeptuan. Gainera, enpresak Anaren izenean, enpleguko pentsio-plan batean 1.900 €-ko urteko ekarpena egin du.
- Josu, lanbidez soldatzailea dena, 2006tik hona langabezian dago arautegian xedatutakoaren arabera tramitatutako eta Eusko Jaurlaritzak onartu zuen enplegua erregulatzeko espedientearen (ERE) ondorioz. 2009an 21.000 € jaso ditu INEMetik langabeziagatik prestazioaren kontzeptuan. Prestazio horretan bi atxikipen egin zaizkio: 1.890 € (PFEZ) eta 820 € (Gizarte Segurantzarekiko kotizazioak). Prestazio horretaz gain, lan egiten zuen enpresak 14.000 €-ko kopurua ordaindu dio, soldata-osagarriaren kontzeptuan. Enpresak 2008/12/31ra arte soldata-osagarrien kontzeptuan ordaindu dion zenbatekoa: 26.000 €. PFEZ arautzen duen 6/2006 Foru Araua aplikatuta (9.4 artikulua), salbuetsita dagoen kalte-ordaina: 32.500 €.
- Anaren amak GSINetik Ezintasun Iraunkor Absolutuko Pentsioa kobratu du, 13.500 €-koa.
- Anak eta Josuk euren jabetzako bi etxebizitza eta garaje-partzela bat alokatzeagatik etekin batzuk lortu dituzte. Etxebizitzak Barakaldon eta Jaka herrian daude, eta garajea, Bilbon.
  - Barakaldoko etxebizitza (errentariaren ohiko etxebizitza dena) alokatzeagatik 8.250 € jaso dituzte. 1996an 100.000 €-ko kopuruan eskuratu zuten etxebizitza, eta printzipaleko 50.000 €-ko hipoteka-maileguaren bidez finantzatu zuten erosketaren zati bat. 2009an, 4.000 € ordaindu zituzten amortizazioaren

kontzeptuan, eta 1.700 €, korritu edo interesen kontzeptuan. Komunitateko gastuak: 360 € (30 x 12 hilabete) eta 165 € (etxebizitzari zegokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga).

- Jakan dagoen familia bakarreko etxebizitza, berriz, 2004an eskuratu zuten 180.000 €-ko zenbatekoan. Hiru hilabetez alokatu zuten (ekainaren 15etik irailaren 15era) eta alokairuaren truke 3.000 € jaso zituzten. Anak eta Josuk etxebizitza horrengatik ordaindutako gastuak: 240 € (komunitateko gastuak: 20 € x 12 hilabete) eta 220 € (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga).
- 2004an guztira 15.000 €-ko zenbatekoan eskuratutako garaje-partzelagatik 1.200 € (100 € x 12 hilabete) irabazi zituzten 2009an. Anak eta Josu 60 € (komunitate-gastuak: 5 € x 12 hilabete) eta 42 € (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga) ordaindu zituzten. Partzelaren erosketa zati batean 8.000 €-ko mailegu pertsonalaren bidez finantzatu zen. 2009an 1.350 € ordaindu dituzte korrituen kontzeptuan eta 240 € amortizazioaren kontzeptuan.

Alokatutako hiru higiezinetan, lurzoruaren balioa balio osoaren % 25 zen.

- Bestetik, BBVAn duten balore-zorrotik etorri zaizkien kopuru hauek jaso dituzte:

- Repsol, Telefónica eta BBVAn akzio-dibidenduak: 1.900 €-ko zenbateko osoa. Atxikipen hau egin zitzaion zenbateko horri: Administrazio eta zaintzako gastuak: 38 €.
- 10.750 €, aurreko urtean harpidetutako Altxorren Letra batzuk epearen mugaegunean (2009/10/19) itzultzeagatik. Harpidetzaren prezioa 10.000 €-koa izan zen eta eragiketaren gastuak 50 €-koak.
- 3.400 €, 2009ko otsailaren 6an 3.000 €-ko zenbatekoan eskuratutako inbertsio-fondoko partaidetza batzuk 2009ko azaroaren 9an itzultzeagatik. Zegokion atxikipena egin zen.
- 14.000 €, Anaren amak 2009/01/03an notarioaren aurrean baimendutako eskrituraren bidez dohaintzan emandako BSCHko 250 akzio-multzoa 2009/12/11n saltzeagatik. Dohaintza egin zenean 11.625 €-ko balioa eman zitzaion akzio horiei.

- Anak Baskepensiones BGAEn 7.500 €-ko ekarpen pertsonala egin du.



- Ohiko etxebizitza, bigarren eskukoa, 2008an eskuratu zuten 300.000 €-ko zenbatekoan, eta 19.400 € ordaindu zituzten zergen eta erosketari lotutako gastuen kontzeptuetan. 350.000 €-ko hipoteka-mailegua eskatu zuten etxebizitza erosteko. Mailegu hori zela-eta 2009an ordaindutako amortizazio-gastuak eta korritu-gastuak: 1.500 € eta 3.000 €, hurrenez hurren.

**Azaldutako eragiketei dagokien PFEZko tratamendua zehaztea, zerga-oinarri orokorrean eta aurrezpenekoan sartu beharreko errentak kalkulatu, baita oinarri-murrizpenak, kuota-kenkariak eta egindako konturako ordainketak ere, Ana eta Josuk aurkeztu behar dituzten aitortzei dagozkienak hain zuzen ere.**

Ariketa egiteko kontuan hartu beharreko datuak:

- Anak eta Josuk ez dute hautatuko baterako zerga-aitortze egitea. Anaren amak ez du nahitaez aitortzea egin behar, eta ez du aurkeztuko PFEZen aitortzea.
- 2009ko lanbide arteko gutxieneko soldata: 8.736 €.
- Lanaren etekinak: adierazi zeintzuk diren alde zuzeneko etekin garbiak, hobariak kontuan hartu barik.
- Kenkari familiarak eta pertsonalak: adierazi bakarrik dituzten kenkari-eskubideak.
- 2009ko urtarrilaren 1era arte, familia-unitateko kide batek ere ez du inolako kenkaririk erabili ohiko etxebizitza eskuratzeko.

#### 4. ARIKETA PRAKTIKOA

Aitor 2009ko abenduaren 10ean hil da Ermuko bere etxean, gaixotasun larri baten ondorioz. Testamentuan jaraunsle bakarra utzi du: azken sei urteotan etxebizitza horretan berearekin batera bizi izan den familiako kide bakarra: Amaia arreba.

PFEZren eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren (aurrerantzean ODZ) aitorpenak prestatzeko asmoz Amaiak zerga-aholkulari baten bulegora jo du, eta hor 2009an egin dituen eragiketak azaldu dizkio, hain zuzen, honako hauek:

1) 2009ko apirilaren 1ean, Aitorrek lan egiten zuen enpresak doan eman zion 2007ko apirilaren 1etik bere erabilera partikularerako laga zion ibilgailua. Ibilgailuaren eskuraketak 24.000 €-ko kostua eragin zion enpresari. Enpresak % 20ko atxikipen-tasa ezarri zien haren lan-ordainsariei eta ez dio jasanarazi berez dagokion konturako sarrerarik.

2) Martxoaren 1ean Aitorrek 1990ko uztailaren 1ean 30.000 €-ko zenbatekoan eskuratu zuen garajea eman zion Amaiari, dohainik. ODZren ondoretarako garajeak duen balioa 50.000 €-koa da, eta balio horrek ez du aldaketarik izan 2009an; bestetik, 1999an eskuratutako eta 2009an eskualdatutako osagaiei ezarri behar zaien eguneratze-koefizientea 1,455 da.

3) Amaia telebistako lehiaketa batera aurkeztu zen, eta bertan lehen saria irabazi zuen: telebista bat. Telebistak 3.000 €-ko kostua ekarri zion antolatzaileari.

4) Enpresak Aitorri jakinarazten dio 2009an enpresak 5.000 €-ko zenbateko ekarpena ordaindu diola Aitorren izenean BGAE bati, eta 350 € ordaindu dituela hitzarmen kolektiboan onartutako heriotza edo elbarritasunerako arrisku garbiko aldi baterako talde-aseguruaren kontratuaren urteko primagatik.

5) Aitorrek ondare hau zeukan hil zenean:

Ondasun eta eskubideak	ODZ balioa (€)
Ermuko etxebizitza (ohiko egoitza)	215.000
Euskadiko Zor Publikoa	50.000
Ibilgailua	10.000
Donostiako Udalaren bonoak	35.000

Kontu korronteko saldoa (Euskadiko Kutxan)	3.000
Inbertsio-fondoko partaidetzak	47.000
Guztira	360.000

3 urtetik gora igaro dira Aitorrek Euskadiko Zor Publikoko bonoak eta Donostiako Udalak jaulkitakoak eskuratu zituenetik eta inbertsio-fondoek, bestetik, 2008ko urtarriletik Aitorren ondarearen barruan iraun dute. Inbertsio-fondoak bere aktiboaren % 90 gutxienez Euskadiko Zor Publikoan inbertitzen du.

Gainera kontuan hartuta Aitor hiltzean (2009ko abenduaren 15ean) Amaia dela BGAE eta talde-aseguruaren onuraduna, Amaiak 57.980 € eta 30.000 €-ko kapitalak jaso ditu, hurrenez hurren, PFEZren % 18ko konturako atxikipen-tasa ezarri eta gero.

Azken datua: Amaiak hiletako gastuak ordaindu ditu, guztira 1.500 €. Halere, hitzarmen kolektiboan onartutakoren arabera Aitorrek 3.000 €-ko prestazioa jaso du kontzeptu horretan.

**Honako hau eskatzen da: azaldutako eragiketei PFEZ eta ODZren ondorioetarako dagokien zerga tratamendua, erantzunak laburrean arrazoituta.**

**Aldi berean, PFEZri dagokionez, zehaztu Aitor eta Amaiaren aitortpenetako zerga-oinarri orokorrean eta aurrezpenaren zerga-oinarrian sartu beharreko errenten zenbatekoa eta egindako konturako ordainketen zenbatekoa.**

**DOZi dagokionez, berriz, zehaztu Amaiak egin beharko lituzkeen aitortpenetako zerga-oinarria eta likidazio-oinarria.**

**Ariketa hau egiteko orduan, lan-etekinak aipatzean alde zurretiko lan-etekinaz ari gara, hobariak kontuan hartu gabekoez, alegia.**

## **5. ARIKETA PRAKTIKOA:**

Zerga-egoitza Amorebietan (Bizkaia) duen X sozietateak torlojuak egiten ditu eta zerga hori bakarrik ordaintzen dio Bizkaiko Foru Ogasunari. Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko VIII. tituluko II. kapituluan aurrez ikusitako enpresa txikien erregimena ezarri behar zaio.

**Sozietatearen gaineko Zergaren zerga-oinarra lortzeko kontabilitate-emaitzari dagozkion doitzeak zeintzuk diren zehaztu behar dituzu, doitze horiek laburrean azalduta, honako informazio hau kontuan hartuta:**

1) 2009ko urtarrilean lein, leasing-kontratu bat sinatu du finantza-errentamenduko sozietate batekin. Kontratuaren xedea erabilera industrialerako B makina berri bat da, egun horretan bertan funtzionatzen hasten dena. Makinaren kostua 31.000 €-ko kopuruan ezarri zen (prezio hori bat dator bere arrazoizko balioarekin), eta erosteko aukera, 2011n egiteko, 1.000 €-ko kopuruan.

Kontratuaren finantza-amortizazioaren taula hau da:

URTEA	INTERESAK	KOSTUA ERREKUPERATZEA	KUOTA GUZTIRA
2009	3.000	10.000	13.000
2010	2.000	10.000	12.000
2011	1.000	10.000	11.000
Erosteko aukera (2011. urtea)		1.000	1.000
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.000</b>	<b>31.000</b>	<b>37.000</b>

Sozietateak makinari, kontabilitateari dagokionez, % 15eko amortizazio linealeko koefizientea (Sozietateen gaineko Zergari buruzko araudia) aplikatzen dio, finantza-errentamenduko kontratuen zerga-erregimen bereziari (Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauko 116. art.) heldu nahi dio.

2) Ekitaldian, balio galera bi erregistratu dira kontabilitatearen barruan, merkataritza-kreditu hauengatik:

- Tokiko administrazio batek ordaindu ez duen 1.000 €-ko zor bat, 2009ko urtarrilean iraungitakoa.

- 2009ko maiatzeko iraugipen-data zuen 1.500 €-ko zorra ez ordaintzea, .

3) 2009ko ekainaren 30ean, A makina 8.000 €-ko kopuruan saldu du. Makina hori berria erosi zuen, 2005eko uztailaren 1ean, 10.000 €-ko kopuruan

OSAGAIA	EROSKETA DATA	EROSKETA PREZIOA	GEHIENEO KOEFIZIENTE A	GEHIENE KO EPEA	2008/12/31RA METATUTAKO AMORTIZAZIOA
- A makina	01/07/2005	10.000	15	10	5.250

2009an egindako eskualdaketei ezar dakizkiekeen koefizienteak, monetaren baliogalera zuzentzeko:

- 2005. urtea: 1,101

- 2006. urtea: 1,083

- 2007. urtea: 1,055

- 2008. urtea: 1,022

- **2009. urtea: 1,000**

4) Ibilgetu ukiezinari dagokionez, 3.000 €-ko amortizazio-zuzkidura bat egin da orain dela 8 urte erositako patente bategatik. Erosketa prezioa 30.000 €-koa izan zen, eta bizitza baliagarria 10 urtekoa izan daitekeela uste da.

5) Gastu batzuen kontuan, galera hauek jasotzen dira:

- Urteko konbentzioa, bezeroei produktu berriak erakusteko	1.950 €
- Zuzkidurak pentsioen kanpoko fondoetara	3.000 €
- Dohaintza bat onura publikokoa ez den elkarte bati	500 €
- Bazkide-administratzailearen egonaldia klinika batean	2.000 €
- Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren isun bat	1.900 €

6) Zergen kontuan, tokiko tasak eta zergak sartzen dira, 1.500 €-ko kopuruan. Zenbateko horretatik, 255 € betearazpen-aldiko errekarquei dagozkie. Onuren gaineko zergaren kontuan, 1.250 € daude. Enpresaren zenbatespenaren arabera, kopuru hori likidatu beharko du 2009ko ekitaldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergagatik.

7) Enpresak, 2009ko irailaren 1ean, ustiapenerako 600 €-ko diru-laguntza bat jaso zuen, eta ez zen kontabilizatu.

8) Finantza-sarreraren kontuan hau islatzen da:

a) Sozietatearen aurrezki-kontu batean egindako sarrera garbiak: 820 €.

b) A sozietatearen dibidendu integroak: 100 €. A sozietatean duen partaidetza % 15koa da, 2005eko uztailetik.

## **6. ARIKETA PRAKTIKOA**

LAGUN ARTEAN SA sozietateak Bizkaiko Fruizen dauka zerga egoitza eta eraikuntzarako materialen merkaturatzea du xede eta Bilbo, Madril, Cádiz eta Gasteizen dauka biltegiak.

2008an 7 milioi euroko eragiketa-bolumena gainditu zuen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren barruan egin zuen eragiketen % 100eko portzentajea.

Sozietatearen biltegi guztien artean 2009. urtean egindako salmenta-eragiketen zerrenda:

**Bilbo**: 5,5 milioi euro; kopuru horretatik 2,5 milioi Gipuzkoa eta Kantabriako bezeroekin eta 2 milioi atzerriko bezeroekin.

**Madril**: 2.000.000 euro.

**Cádiz**: 300.000 euro.

**Vitoria-Gasteiz**: 2 milioi euro; kopuru horretatik 500.000 euroko salmentak Burgos eta Errioxako bezeroekin egindako eragiketei dagozkie.

Ekitaldi berean, sozietateak Kantabrian zegoen pabilioi bat eskualdatu du. Eskualdaketaren zenbatekoa: 900.000 euro.

Merkataritza Kodeko eta Kontabilitateko Plan Orokorreko arauen araberako kontabilitate-irizpideak erabiltzen ditu sozietateak. Sozietateari egindako 2009ko ekitaldiko auditorian ez da ageri salbuespen aipagarririk.

2009ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren likidaziorako datu hauek ditugu, sozietatearen kontabilitatetik ateratakoak:

1.- Sozietatearen kontabilitateko emaitza: 200.000 euro, eta etekinen gaineko zergaren kontuan (630) 50.000 euroko zenbatekoko kargua ageri da.

2.- Sozietateak hurrengo zerga-oinarri negatiboak aurkeztu ditu, konpentsatzeko zain daudenak:

1993: 90.000 euro.

1995: 60.000 euro.

3.- Kapitalaren etekinei egindako Sozietateen gaineko Zergaren konturako atxikipenak: 10.000 euro.

4.- Konpentsatzeko dauden aurreko ekitaldietako kuota likidoaren gaineko kenkariak:

Aktibo finko material berriak-93	120.000	kuota likidoaren muga: 25%
Enpleguaren sorkuntza-96	40.000	mugarik gabe

5.- Ibilgetu materialaren barruan makina industrial bat dago sartuta, 2005eko azaroaren 1ean 42.500 euroko zenbatekoan eskuratutakoa. Tauletan baimendutako gehienekoa baino handiagoa den amortizazio-koefizientea (% 15koa) aplikatuz amortizatu da makina hori eta hurrengo ekitaldietan Sozietatearen gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko beharrezko kontabilitateetik kanpoko doitzek egingo dira hurrengo ekitaldi guztietan.

Horrela, 2005. urtean makina hori amortizatzeko % 50eko kontabilitate-zuzkidura egin zen eta 2006an gainerako % 50a.

6.- Enpresak 2009ko ekainaren 1ean I + D jarduera bat hasi zuen, 5 urteko iraupeneko ikerketa-proiektu zehatzean zehaztuko dena. Horretarako 85.000 euroko zenbateko makina eskuratu zuen, jarduera horri lotzeko hain zuzen ere. Makina % 10ean amortizatuko da kontabilitatean, amortizazio-taula ofizialekin bat etorrira.

Gainera ekitaldian hainbat kontzeptutarako (langile, lehengaiak...) 35.000 euroko zenbatekoko gastuak egin dira ikerketa-proiektu horren barruan, ekitaldia ixtean ibilgetu ukiezin legez aktibatu direnak.

7.- Sozietateak banan-banan zehaztu du bere zordunen kaudemengabezia-arriskua. Ekitaldia ixtean zordun batek bere zorra, 10.000 euro, ordaintzen dio sozietateari. Zor horren narriadura aurreko ekitaldiko kontabilitatean ageri zen, baina ezin izan zen kenkari legez erabili Sozietatearen gaineko Zergan, berandutza edo berankortasuneko aldia hamabi hilabetez beherakoa zelako.

8.- Sozietateak Burtsan kotizatzen duen sozietate baten 1.000 akzio eskuratu zituen 2008an. Akzioen balio nominala: 60,10 euro. Eskuraketaren prezio globala: 60.100 euro. Sozietateak eragiketan ordaindutako gastuak: 750 euro. Enpresak epe luzera gordetzeko asmoz erosi ditu partaidetza horiek, hortaz "Salmentarako eskuragarri dauden finantza-aktibo" legez sailkatu ditu bere kontabilitatearen barruan. 2008an titulu horiek ez zuten inolako balio-zuzenketarik izan.



Ekitaldia ixtean enpresak akzio horien balorazioa zuzentzea erabaki zuen, KPOko Erregistro eta Balorazioko 9. Arauaren arabera, 2009ko abenduaren 31n haien kotizazioa balio nominalaren % 50ekoa zelako.

9.- Sozietateak martxoan furgóneta zahar baten dohaintza egin zion irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubideari buruzko otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauan ezarritako baldintzak betetzen ez zituen langabetuen elkarte bati. Furgonetaren kontabilitateko balioa 4.000 eurokoa zen orduan, furgonetaren merkatuko balioa 4.500 eurokoa zenean.

10.- Enpresak aseguru-etxe batekin erretiroko aseguru-poliza bat kontratatuta zeukan, sektoreko lan-hitzarmena dela-eta enpresako langileekin sinatutako konpromisoei aurre egiteko. Aseguruaren ondoriozko kopuruak jaso ahal izateko baldintza bat dago jarrita: langileak enpresan jarraitu behar du erretiro-adinera iritsi arte. 2009an ordaindutako prima 90.100 eurokoa izan da eta sozietatea bera ageri da onuradun moduan.

11.- Sozietateak Altxor Publikoak jaulkitako bonoak harpidetu zituen 2009ko ekitaldiaren barruan. 2009ko kontabilitatean ez zen erregistratu sorrarazitako eta 2010era arte (ordainketaren benetako data) benetan ez jasotako korritu edo interesen zenbatekoa (15.750 euro).

**Zehaztu zein den 2009ko Sozietatearen gaineko Zerga dela-eta sartu beharreko itzultzeko kuota, kontuan hartuta Lagun Artean, S.L. sozietateak Sozietatearen gaineko Zergari buruzko 3/96 Faren 49.1. artikuluan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela neurriko txikiko enpresa (enpresa txiki) moduan sailkatua izateko eta, bestetik, enpresak ekitaldi horretan araudian araututako zerga-abantailak ahalik eta ongien erabiltzeko asmoa duela.**

**Ariketa egiteko orduan ez da kontuan hartuko SZFAren 15.9. artikuluan aipatu monetaren galera zuzentzeko koefizientea.**

## II. C ZATIA. KONTABILITATEA

### 7. ARIKETA PRAKTIKOA

**Egin BASAJAUN SL sozietatearen onuren gaineko zergaren kontabilizazioa.** Kontuän hartu entitate horrek **Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren araudia bete behar duela, hari lotuta dagoelako,** eta 2009ko urtarrilaren 1ean irekitze-balantzean (Sozietateen gaineko Zergaren karga-tasa: % 28) saldo hauek zituela:

Konpentsatu beharreko galerengatiko kreditua	1.750 €
Denbora-diferentzia kengarriengatiko aktiboak	700 €

Eragin fiskala duten eragiketak:

- 1.- 2009ko ekitaldian, zergak ordaindu aurreko emaitza 100.000 eurokoa da.
- 2.- Sozietateak, Galera eta Irabazien gastuen barruan, trafikoaren arau-hauste batzuk direla-eta jarri zitzaizkion isun batzuk kontabilizatu ditu: guztira 3.0000 €.
- 3.- Sozietateak balio-zuzenketa bat egin du, bezero baten 6.000 euroko kreditu-narriaduragatik. Izan ere, ekitaldia itxi zenean, 4 hilabete igaroak ziren kreditua ordaintzeko epea iraungi zenetik.
- 4.- Bestetik, uztailearen 1ean, 5 urteko bizitza baliagarria duen makina bat erosi du, 30.000 euroko kopuruan, eta horretarako askatasun-amortizazioari helduko dio. Amortizazio mota hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekinaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 11.4 artikuluan jasotzen da.
- 5.- Denbora-diferentzia kengarriengatiko aktiboek erreferentzia egiten diote bere dotazioaren ekitaldian zergaren arloan kengarria izan ez zen baina oraingoan kengarria den hornidura bati.
- 6.- Konpentsatu beharreko galerengatiko kreditua ekitaldi honetan aplikatuko da.
- 7.- Kuotaren kenkariak eta hobariak, guztira: 12.000 euro.
- 8.- Sozietateen gaineko Zergaren kontura jasandako atxikipenak: 1.000 euro.

## 8. ARIKETA PRAKTIKOA

EUTSI GOGOR SL sozietateak Bizkaiko Lurralde Historikoan dauka zerga-egoitza eta industri sektorean dihardu. Auditoriako prozesuaren ondorioz egin diren hainbat proba teknikorik esker 2009. urtean egindako akatsak eta kontabilitatean sartu ez diren eragiketarik antzeman dira, honako hauek hain zuzen ere:

a) 2009ko apirilaren 1ean makina bat erosi zitzaion Gasteizko enpresa bati 60.000 euroko eskurako prezioan, eta sozietateari % 5eko merkataritzako deskontua egin zitzaion. Makina behin betiko kokapeneraino garraiatu eta garraio hori aseguratuzko gastuak eroslearen kontura izan dira, hurrenez hurren 2.500 euro eta 1.200 euro.

Makina prest egongo da, abiatzeko moduan, 2010eko ekainaren 1ean. 2009an egingo dira makina muntatu eta finkatzeko beharrezko lan hauek:

- Lurra berdintzea: 1.700 euro.
- Ingurumen-eraginaren azterlana, enpresa espezializatu batek egindakoa: 1.000 euro.
- Makina jarri eta muntatzeko bost espezialista kontratatzea: espezialista horiei 3.000 euroko aurrerakina eman zaie.

Makina horren erosketa finantzatzeko mailegu bat eskatu eta 2009ko apirilaren 1ean 50.000 euroko mailegua eman zen, % 1eko urteko interes efektiboko mailegua, hain zuzen ere. Maileguaren iraungipen-data: 2011ko apirilaren 1a.

b) 2009ko urrian sozietate berri bateko 100.000 partaidetza eskuratu ziren, euro 1eko balio nominala eta 2 euroko jaulkipen-prima zutenak. Horretarako sozietateak orube bat jarri du, 110.000 euroko kontabilitateko balioa duena eta 300.000 euroko arrazoizko balioa.

c) 2001eko irailaren 1ean makina bat eskuratu zuen, 120.000 euroko zenbatekoan. Makinaren bizitza baliogarri 10 urtekoa da eta linealki amortizatzen joan izan da, estimatzen zaion hondakin-balioa hutsa izanik. 2009ko irailaren 1ean makina hori ekoizpen-prozesutik kendu eta beste bat jarri zen haren ordez. Orduan makina saltzeko plana jarri zen abian, urtebeteko epea bete aurretik emaitza lortu zuena. Makina zaharraren arrazoizko balioaren estimazioa: 20.000 euro; salmenta-gastuak: 2.000 euroko.

d) 2007ko urtarrilaren 1ean sozietateak patente bat erosi zuen, 8 urteko bizitza balioarrikoa, 200.000 euroko zenbatekoan. Egun berean merkataritzako marka bat ere eskuratu zuen, 100.000 euroko zenbatekoan.

2009ko martxoaren 1ean sozietateari iritzi zion markak balioaren %40ko narriadura izan zuela, merkataritzako balioa galdu zuelako, eta hortaz 4 urteren buruan esku-diruaren fluxu garbiak sortzeari utziko ziola.

e) Sozietateak 2009ko ekitaldian I + D proiektu berri bat hasteko erabakia hartu du eta horrek kostu hauek sorrarazi ditu ekitaldiaren barruan:

- Langile-gastuak (soldatak eta alokairuak + Gizarte Segurantzak): 22.000 euro
- Materialak erostea: 10.000 euro
- Hornidurak: 3.000 euro.
- Hainbat gastu: 3.000 euro.

Ekitaldiaren amaierak sozietateak erabaki du proiektuaren arrakasta teknikorako eta errentagarritasun ekonomiko eta komertzialerako funtsezko arrazoiak daudela eta KPÖren 6. EBAn jasotako gainerako baldintzak betetzen direla. Ondorioz sozietateak proiektuari dagozkion gainerako gastuak aktibatzea erabaki du.

f) Sozietateak merkataritzako gaiak garraiatzeko kamioi bat eskuratzeko finantza-errendamenduko kontratu bat sinatu du 2009ko urtarrilaren 1ean. Haren balioa: 80.000 euro, urteko % 7ko interes-tasa efektiboan. Kontratuaren iraupena: 4 urte. Epe hori igarotakoan 2.000 euroko zenbatekoko eskuraketa-aukerari heldu ahal izango zaio.

Urteak	Urtekoa	Interesak	Ondasun-balioaren berreskuraketa
2009	23.167,79	5.600	17.576,79
2010	23.167,79	4.370,25	18.797,54
2011	23.167,79	3.054,42	20.113,37
2012	25.167,79	1.646,49	23.521,30
GUZTIRA		14.671,16	80.000

Erakundeak elementuaren % 12ko amortizazio lineala egiten du, zerga-tauletan ezarritakoarekin bat datorren amorrazioa.

g) Sozietateak 2009ko azaroaren lehen sozietate baten 10.000 akzio eskuratu zituen. Akzio horien kotizazioa: 10 euro nominal, % 190koan; gastuak: akzioen balio nominalaren % 1. Negoziatzeko eutsitako finantza-aktibo legez sailkatu du sozietateak inbertsio hori, akzioak epe laburrean saltzeko asmoa omen daukalako.

Ekitaldia ixtean akzioek duten kotizazioa: % 187.

h) 2009ko otsailean sozietateak salgai batzuk eskuratu zituen kreditura (urte 1) Britainia Handian 90.000 libra esterlinako zenbatekoan; orduko indarreko kanbio-tasa: libra 1 = 1,20 euro. Garraio-gastuak: 285 euro, eskudirutan ordainduta.

2009ko ekitaldia ixtean indarrean zegoen kanbio-tasa: libra 1 = 1,10 euro.

**Egin 2009ko urteko eragiketei dagozkien kontabilizazioak, azaroaren 16ko 1.514/2007 Errege Dekretuan (Kontabilitateari buruzko Plan Orokorra onetsi zuena) xedatutakoaren arabera, BEZaren eragina kontuan hartu gabe.**

# **PARTE II B. DERECHO TRIBUTARIO DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA. PARTE ESPECIAL**

## **CASO PRÁCTICO NÚMERO 1:**

BIZKAI-PROMOZIOAK SAU se dedica a la actividad PROMOCIÓN DE EDIFICACIONES (epígrafe 1 83321).

### **PARTE PRIMERA**

**A partir de la información que se facilita en el siguiente supuesto, analice: hecho imponible, sujeto pasivo, base imponible, tipo de gravamen, cuota tributaria y devengo a efectos del IVA e ITP y AJD que puedan derivarse del mismo, considerando cada apartado de forma independiente.**

**Nota: Todas las cifras que aparecen en el supuesto no llevan incorporado el IVA.**

**a.** La sociedad BIZKAI-PROMOZIOAK SAU amplía su capital social en 1.000.000 € con cargo a la Reserva por Prima de Emisión de Acciones, documentándose la operación en la correspondiente escritura pública.

**b.** Adquiere un solar a la promotora ERAGILEAK SA, por 3.000.000 € destinado a la construcción de viviendas de protección pública.

Al objeto de financiar esta adquisición, obtiene un préstamo de una entidad bancaria por importe de 2.400.000 €, en garantía del mismo, constituye una hipoteca inmobiliaria sobre el mencionado terreno. Durante los cinco primeros años se ha pactado un interés fijo del 4,5 %.

**c.** Sobre otro solar, adquirido dos años antes, se ha construido un edificio de viviendas y locales comerciales. Al terminar su construcción se ha otorgado escritura pública de declaración de obra nueva y configuración del inmueble en régimen de propiedad

horizontal. En dicha escritura se ha hecho constar que *“a efectos fiscales el coste de las obras proyectadas ha sido de 5.000.000 € y el valor de la parcela solar sobre la que se han desarrollado las mismas es de 4.000.000 €”*.

d. La sociedad efectúa una ampliación de capital social de 6.000.000 € parcialmente liberada, con cargo a reservas voluntarias por 3.000.000 € y aportando el socio único otros 3.000.000 € otorgándose la correspondiente escritura pública.

